



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Potentziala

Sky etxeak atera berri duen jatorrizko ekoizpe-
netako bat da Aldous Huxleyren «The Brave
New World» liburuaren moldaketa. Bizi ditu-
gun garai arraro hauetan edozein egoera disto-
piko erakargarria iruditze gure tolerantzia
mailarik baxuenetan dagoen arren, Huxleyk as-
matutako New London inoiz baino gertuago sentitu dut.
Diskurtso filosofikoa sofistikazio gutxiko harreman gehie-
gitan islatu dutela esango nuke, baina produkzioaren kalita-
tea eta hainbat aktore ezagunen lana benetan bikainak dira.

Danubio ibaiaren deltan dagoen Sulina izeneko herrian
irakurri nuen Aldous Huxleyren liburua. Herriaren izena
ahaztuta neukan, baina bidaiatzeko eta hotelak bilatzeko
benetako liburuak erabiltzen genituen garaiak ziren, eta li-
buru haiek izaten zituzten azken orri zurietan bidaian zehar
bisitatuko lekuak idazteko ohitura nuen. Apalean hautsez
beteta zegoen liburua, eta han aurkitu dut izena. Sulina.

Bertakoek galdetzen ziguten ea zergatik joan ginen hara,
Bartzelona zuten nire “gertuko” erreferentzia bakarra eta
ulergaitza zitzaien nola au-
keratu nuen Errumaniako
leku galdu hura egun ba-
tzuk pasatzeko. Bartzelo-
nan egon nintekeenean ale-
gia. «Maiteko duzu edo
gorrotatuko duzu» ahol-
kuarekin joan ginen Erru-
maniara, berezkoa dudan
optimismoak bultzatuta le-
henengo taldekoa izango
nintzelakoan. Tamalez de-
sengainu handia hartu
nuen, eta askok zioten po-
tentzialaren alde positibo
hori ikusterik ez nuen izan.

Potentziala askotan gain-
baloratuta dagoela irudi-
tzen zait, sarri libreki era-
biltzen dugun kontzeptua
da, izan ere. «Horrek poten-
tzial handia dauka, bizi-
tzean zerbait handia lortu-
ko du» eta antzekoak
behin eta berriz entzuten
ditut nire inguruan. Poten-
tzialak daukan gauzarik
txarrena da beste norbai-
ten laguntza behar duzula
lehenik eta behin poten-
tziala aitortzeko (urratsik

errazena) eta gero gaitasun horrekin zerbait egiteko (asko-
tan gertatzen ez dena). Bestela ametsen gelditzen da.
Kontzeptu hutsean.

Abuztuko arratsalde bero hartan, han nengoen hutsik ze-
goen terraza batean Danubioren handitasunari begira, “Bra-
ve New World” irakurtzen. Une hartan bertan jaso nuen te-
lefono deia BBCn hartu nindutela esanez. Zorionekoa
sentitzen naiz nire potentziala ikusi zuen pertsona hura
azaldu zelako, nire ustez hala moduzko elkarrizketa hartan
eman nituen erantzunetatik haratago beste zerbait ikusi
zuelako. Eta Errumaniako leku dekadente hartan hasi zen
nire ondorengo hamar urteetako ibilbide pribilegiatua.

**Sentsibilizazio handia daukat potentzialaren kontuare-
kin; badauzkat antzeko adibide ugari: espero ez nituen
enkontruak, bidean bilatu ditudan pertsona konkretu
batzuk eta aukerak egiten lagundu didaten beste hain-
bat.** Niri eman didaten laguntza horren esker ona beste ba-
tzuei bueltan ematen saiatzen naiz eta oso presente daukat
hori nire egitekoan.

Unibertsitatetik atera be-
rri diren zazpi gazterekin
solasaldia izan nuen aurre-
ko astean, Sky etxean dago-
en formakuntza testuingu-
ru batean. Bi urtez, negozio
analisi eta estrategia postu
ezberdinak betetzeko auke-
ra ematen zaie, sei hilabe-
tean behin sail ezberdine-
tan postuak txandakatuz.
“Millenial” belaunaldikoen
ezaugarrietako bat da era-
kusten duten azaleko se-
gurtasun eta ausardia hori,
harrotasun ukitukoa eta ig-
norantzia betetakoa. Po-
tentzial izugarria ikusi
nien, baina han egote hu-
tsagatik zeukaten zortez
ez zirela jabetzen garbi ze-
goen. Eta, hori da poten-
tzialaren beste dimentsio
garrantzitsua. Laguntzeko
prest dauden haiei, lagun-
tzen utzi behar zaiela. Au-
toerrekonozimendu horren
faltan, mundua jateko
prest dagoenaren ibilbidea
azkar amaituko da. •



GAUR8